


Hiru hausnarketa eta poema bat

NATALIA GINZBURG

Itzulpena:
Irene Hurtado de Saratxo Mendieta

BOOKTEGI





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

NATALIA GINZBURG

hiru hausnarketa eta poema bat

Itzulpena:

Irene Hurtado de Saratxo Mendieta

Argazkia:

Basilicata, Matera 1951

Henri-Cartier Bresson

Magnum Photos

Egilea

Natalia Ginzburg (jaiotza-izena: Natalia Levi; Palermo, Italia, 1916ko uztailaren 14a - Erroma, Italia, 1991ko urriaren 7a). Idazle, itzultzaile eta editore italiarra. Lehen Mundu Gerran jaio zen Palermon, orduan aita -Giuseppe Levi irakasle entzutetsua- hango unibertsitatean lanean ari zelako, baina bera haurtxo bat besterik ez zela familia osoak jo zuen Torinora, aita hiri horretako unibertsitatara eraman baitzuten. Torinoko burgesiako familia ezagunenetakoa bat bilakatu zen. Mussoliniren erregimenaren jazarpen latza pairatu zuten mugimendu sozialistan eta antifaxistan aritzeagatik. Aita jatorri judukoa zen baina heziketa atea jaso zuten seme-alaba guztiek. 1938an jatorri juduko Leone Ginzburg intelektual komunistarekin ezkondu zen, eta 1940an harekin batera jo zuen Abruzzoko erbestealdira, Bigarren Mundu Gerra hastean Mussolinik erbestera bidali baitzituen juduak eta militante antifaxistak. 1944an Leone Ginzburg atxilo hartu, eta Regina Coeliko espetxean hil zuten, alemaniarren esku zegoen kartzelako atalean. Gerraostean Einaudi argitaletxeko editore hasi zen, Torinon. 1983an Italiako Alderdi Komunistako diputatua izan zen. Lau liburu ditu euskaraz. Hiru eleberri argitaratu dizkio Igelak: *Hirira doan bidea* (itz.: Pello Lizarralde), *Arratseko ahotsak* (itz.: Pello Lizarralde) eta *Familiako lexikoa* (itz.: Fernando Rey). Alberdaniak *Bertute txikiak* (itz.: Irene Hurtado de Saratxo) saiakera-liburua eman dio argitara.

Beste eleberri nabarmen batzuk: *Tutti i nostri ieri* (1952), *Caro Michele* (1973), *Famiglia* (1977), *La città e la casa* (1984).

Saiakeren artean: *Mai devi domandarmi* (1970), *Non possiamo saperlo. Saggi 1973-1990* (2001), *Un'assenza. Racconti, memorie, cronache 1933-1988* (2016).

NATBeleak hegan Matera gainean

Bat Materara iristen denean iruditzen zaio besteen moduko hiri bat dela; bada plazatxo bat erorien aldeko monumentu batekin eta lastoz bil-bil egindako palmekin orain negua delarik; badira haurrak zelofanezko zirarekin eta permanentea eginda duten neskak; eta kafetegi txiki zahar eta tristeak emakumeekin eta beloak eta girlandak paretetan pintaturik, eta kafetegi txiki berri eta tristeak mahaitxo kromatu eta ispiluekin; kafetegi horietan guztietan jan daitezke hain gozoak diren hegoaldeko pasta handiak, eta nonahi dela ere sumatzen da hiri txikiei darien ohiko tristura. Baina batek aurreraxeago joz gero topatuko duen lehenbiziko gauza bitxia da eliza bat, burezurak eta hezurdurak zizelkaturik, eta gainean *miseremini mei, miseremini mei* inskripzioarekin; eta eliza horretan datza benazko Matera hiriaren zentzua; izan ere, benazko Matera hiria eguzkiak kiskalitako hezur zurien pila bat da; eta kale arruntetik beheraxeago eginez gero, zelofanezko zira eta dendatxo zahar eta berrien artean, hegoaldeko probintziako hiri baten ohiko tristuran, burua agertu eta Sasso ikusiko duzu: hiriaren alde horretan bizi dira nekazariak, alegia, hezur-pila bat; eta ni han izan nintzenean elurra ari zuen eta haize-ufada hotz-hotzak zebiltzan, baina irudipena nuen uda itogarria eta kiskalia zela hura; amaierarik gabeko udako ilunabarra abailtzen da beti hiri honen gainean. Sassoko etxeak tuparriz eginda daude, leize-zuloen hesi bitxiak hedatuz ibai ondoraino, zeina ur lohitsu baitoa ibilian lasto ustelez eta zaborrez beteriko harritzan barrena. Beleak hegan dabilta zeruan zirkuluak osatuz, eta etxeen aurrean izara adabakiz josiak eta kulero kotoizko handiak mugitzen dira soketan haizearen eraginez; haur zurbil eta oinutsak jolasean aritzen dira zabor eta lasto ustelaren artean; emakumeak xal beltzetan bildurik presatzen dira mandoaren gainean aldaroka soro urrunetarantz. Etxeen barnealdean kirats izugarria usnatzen da, mendeetan trinkotutako heze zahar minduarena; etxe batzuek leiho txiki bat dute eta beste batzuek ez dute bat ere eta zabalik uzten dute atea; izkina batean egoten dira mandoa eta haurtxoaren sehaska eta ohea eta jana prestatzeko labetxoa, batzuetan txerria eta bizpahiru oilo ere bai, horrela, dena batera; mandoa eta txerria dituzten etxeak hainbestean bizi den jendearena dira, bai baitira bestelako etxeak, non ez baita mandorik, ez oilorik, gabezia eta miseria besterik ez. Barrendu nintzen etxe batean bizpahiru lagun zeuden sutontzi inguruan eserita; bat ergela zen eta barrez ari zen, hanka-hutsik zegoen oin horituak sutontzian

bermaturik eta hatsanka egiten zuen barre. Neska bat zutitu zen, ergelaren arreba; esan zidan haiek ez zeukatela mandorrik, denak zirela jornalariak, alegia, peoiak; egunero hara-hona ibili behar zutela lana zeinek emango. Neska ilehoria zen eta ederra, patxadaz mintzo zen, ez zen sinestekoa nolatan ziren sabel beretik atereak bera eta ergela; bazuen koinatu suhiltzaile bat eta zinemara eramaten zuen noizik edo behin, harentzat dohainik baitzen; gainerako neskak ez ziren zinemara joaten horretarako dirua behar da-eta. Igandeetan hiri arruntera igotzen dira, hor baitira denda txikiak eta zelofanezko zirak, eta postetxe handia ikur faxista zizelkaturik; gizonak tabernetan barrentzen dira morra jokatzera baso handi bat ardo beltz aurrean dutela. Sassoko leize-zulo baten errentak lauhun eta seihun lira artean balio du urtean; guri gutxi irudituko zaigu, baina kontuan izan behar dugu jende honentzat dirua oso kontu desberdina dela, guretzat dena ez bezalakoa; haientzat hamar lira ere bakanak eta baliotsuak dira, zaindu eta defendatu beharrekoak; horrela da mendeak joan eta mendeak etorri, eta ez dago diruaren ikuskera hori irauliko duen inflaziorik. Horrela da mendeak joan eta mendeak etorri, eta diruaren balioa mudatu bada ere, ez da mudatu gizakiak diru poxi bat eskuratuko badu bota behar duen neke-izerdia. Badira merkatu beltzari esker aberastutako nekazariak, baina aberastasunak ez du ezertan aldatu haien bizimodua, ez haien etxeen barnealdea, ez eta diruaz duten ikuskera ere, alegia, eskuratzen izugarri zaila den zerbait, odolarekin defendatu beharrekoa; agian aberastasuna zera besterik ez da: zabor eta neke gehixeago.

Sassoko etxe asko ikusi nituen eta antz-antzekoak dira denak, tuparrizko leize-zuloak bata bestearen gainean eraikiak, batzuk mando eta txerriarekin eta beste batzuk ezer gabe, ohe handi bat eta santuen irudiak eta labetxo bat babekin, ez besterik. Ate baten aurrean atso bat zegoen eserita, adats urdinak sorbaldaren gainean askaturik, neskato batek orrazten zion bitartean; ate gainean «salgai» zegoen idatzirik, leize-zuloa zegoen salgai; leiho txiki okertu batean pixontzi bat zegoen geranio batekin. Etxeen inguruan barreiatutako kalezuloetan orgak zeuden lerrokaturik. Mandoa eta orga dituztenak hainbestean bizi dira. Gauerdian jaikitzen dira mandoa gobernatzeko, han dute ohetik bi urratsera; gero lotara doaz berriz eta goizeko hiruretan jaikitzen dira osterara ere eta lanera egiten dute zazpi edo zortzi edo bederatzik kilometrora dagoen sorora. Emakumeek bizkarrean daramatzate haurrak eta ogi pixka bat eta babak jateko; gauez etxeratzen direnean akituegi egoten dira janaria prestatzeko eta, beraz, ez dute ezer

prestatzen; lan asko dagoen garaian ez dute sekula ezer prestatzen; neguan pasta pixka bat goizez, oratu eta almendra-oskol itxura emanda; gauez ezer ez, ogia edo babak jaten dituzte. Guztiz gehienak maizterrak dira eta aleka ordaindu behar duten saria garestiegia da, maiz biltzen duten uzta baino garestiagoa; orduan zorpetu egiten dira; errentan duten soroko sail mehar batean babak landatu eta horixe jaten dute. Ez dago zorririk ez duen lagunik. Seme-alabak ez dituzte eskolara bidaltzen lotsa ematen baitie oinutsik eta zarpailtsu erakutsi beharrak.

Soroetan malaria dago, inondik ere; asko dira malariak jotakoak, baina askoz gehiago tuberkulosiak erasandakoak. Materako biztanleek seme-alaba asko izaten dituzte, eta haurren heriotza-tasa Lucania osoko altuena dute. Emakumeak xal beltz handietan bildurik, gizonak kapa beltz handietan bildurik eta haur saldoak oinutsik eta basa, zikinez eta lohiz beteriko kalezuloetan korrika leize-zuloen inguruan; izara eta kulero adabakiz josiak soketan eskegirik lehertzeko, tomate- eta piper-kordak aturreetan; begi beltzak eta bisaia horiak; baten bat etsiturik, are sorgorturik, mendez mende dirauen miseriaren patuarekin; baten bat Vercellin edo Casalen izana da soldadutzan edo lehengusuren bat ikusten eta behin eta berriz ekartzen du akordura promestutako lur bat nola. Eta bitartean hiri arruntean zeharo desberdina den bizitzak egiten du aurrera, guztiz bestelakoa den erritmoan, eta bada trena hartu eta Napolira, Torinora edo Erromara doanik, agian bada bizar-makina elektrikoa duenik, bada aspertu eta irratia pizten duenik, eta badira ikasle gazteak, aurpegia oilaurrez beterik, Hemingway eta Sartre irakurri eta ororen jakitun direnak suharki.

«Beleak hegan Matera gainean», *Omnibus*, Milano, III, 6, 1948ko otsailaren 9a, 6. or.

Hegoaldeko emakumeak

Orain berrian Hegoaldean izan naiz eta gaur, martxoak 8, nire gogamenetik kendu ezinean nabil han ikusi ditudan emakumeak.

Esango didate gaur jai-eguna dela, kontu alaiak erabili behar ditugula buruan eta ez kontu tristeak, hotsandiko arrazoiak ekarri behar ditugula gogora eta ez, berriz, bihozgabetzeko arrazoiak. Baina nik ezin ditut gogamenetik aldendu Materako emakumeak eta malariak jotako beren seme-alabak, Tricaricoko emakumeak eta beren zarpailak, beren etxe zorigaiztokoak.

Lucaniako emakumeek sarritan ez dituzte seme-alabak eskolara bidaltzen lotsa ematen baitie oinutsik eta zarpailtsu erakutsi beharrak; Lucaniako emakumeak gauez doaz lanera zortzi, hamar kilometrora dauden soroetara. Lucaniako emakumeak hezez kerututako etxeetan bizi dira eta malariak eta tuberkulosiak jota gaixotzen dira.

Haurtzaro laburra izaten dute emakume nekazariak. Lagun goibela da miseria, jolasik eta denbora-pasa lasairik onartzen ez dituen. Gaztaroa ere laburra izaten dute, eta gabeziak eta lan akigarritz beteriko bizitzak edertasun galkor eta gaixobera bat lorarazten du emakume horien bisaietan. Amatasunak eta edoskitzaroak ahitu egiten dituzte haien gorputz segailak. Edoskitzaro luzeek hortzeria suntsitzen diete amei, ezinbestez eman behar baitiete haurrei hazkurri natural eta doako hori ahalik eta beranduen arte.

Lucaniako kale goibeletan, soro hits eta idorretan, hara-hona doaz emakumeak, beren xal beltzetan bildurik, barre-iduri otzan eta etsi batez haien aho horzgatuetan. Napolin Hegoaldeko Biltzarra egin zenean, emakume horietako asko beren herrietatik etorri ziren, kilometroak eta kilometroak oinez eginez estaziora iristeko, beren xal beltzak aldean, haurrak gonei helduta, ogiaren fardeltxoak xalen azpian.

Etorri ziren entzutera ea zer esaten zuten haiei buruz, ea baten batek asmatzen ote zuen irtenbideren bat beren arazoetarako. Pozik zeuden entzunean, irudipena zuten azkenean baten bat saiatuko zela beren patua onbideratzen.

Italiako emakume maiteak, haiek eduki behar ditugu gogoan, guk egunero jaten baitugu, hobeto edo okerrago, eta gure seme-alabak osasuntsu hazi, eskolara joan eta zapatak baitituzte; guk bizitzeko moduko etxe duinak ditugu. Haiei esan behar diegu sekula ez garela herri libre bat izango, gugandik kilometro gutxira eta gure herrialdean bertan, gure moduko gizabanakoek halako egoera tragikoa pairatu behar badute.

«Hegoaldeko emakumeak», *l'Unità*, Italiako iparraldeko edizioa (Milano), 1948ko martxoaren 7a, 3. or.

Alluminium fabrika duela ehun urte bezala dihardute

Rita Montagnanarekin egin nuen topo, Borgo Dorako Alluminium fabrikatik bueltan zetorrela. Izan genuen solasaldi bizian elkarrizketa-moduko bat sortu zen eta orain bere horretan errepikatuko dizuet.

Ritak zapla bota zidan zailtasunak izan zituela sartzeko; egiaz kontatu zidan zuzendari eta jabe Emprim ingeniariak, Gilardinik eta Bollak eragotzi ziotela fabrikara sartzea —ordura arte sekula gertatu gabeko kontua— eta zakarki erantzun zietela berak behin eta berriz egindako eskaerei. Hala ere, Rita Montagnanak fabrika bisitatu zuen emakume langileek atea ireki baitzioten, jabeen gogoz bestera.

—Sinets egidazu —esan zidan Ritak—, ni fabrika askotan egonda nago eta ez naiz inola ere hasiberria kontu hauetan, baina Alluminium-en inon baino okerrago daude kontuak.

—Zenbat langile aritzen dira Alluminium-en? —egin nion galde.

—Ehun eta hirurogeita hemezortzi langile: berrogeita hamahiru gizon, ehun eta bederatzi emakume eta hamasei ume. Gela zikin eta ilunetan lan egiten dute, han nekez har daiteke arnasa. Sail batzuetan hautsa metatzen da ez baitago xurgagailurik. Lana kaltegarria eta arriskutsua da: kaltegarria hautsa biriketan barneratzen delako, arriskutsua lan-erritmoa bizi-bizia delako eta oso ohikoa delako prentsek emakume langileen hatz-hezurak moztea.

—Ba al dago jantokirik?

—Ez. Langileek, emakume zein gizon, zikinkeriaren erdian jaten dituzte, lanean aritutako leku berean, etxetik eramandako puska apurrak. Laneko legearen arabera, kaltegarriak diren lanetan nahitaezkoa da jantokia izatea, baina hor ez da legea betetzen. Beste horrenbeste gertatzen da hartzaindegiarekin: lantegi batean berrogeita hamar emakume langile baino gehiago egonez gero, legeak hartzaindegia izatera behartzen du, baina Alluminium-en ez dago hartzaindegirik.

—Garbiketa-sailean lana bereziki gogorra da. Aluminioko objektuak azidoetan murgildu behar dira, emakumeek erreta dituzte eskuak. Gutxitan ematen dizkiete eskularruak; zulatzen direnean ez diete ordezkorik ematen.

—Nolakoak dira instalazio higienikoak?

—Ezin txarragoak. Komunak zikin-zikin daude, konketetan oso ur gutxi dago. Dutxa bakarra dago fabrika osoan. Erizaindegia gela txiki bat da, hauts-geruza batez estalitako ohatila batekin; izkina batean, saskiak; zorua zikin dago eta oztopoz beterik; ez dago mediku edo erizainen arrastorik batere.

—Nola funtzionatzen du berogailuak neguan?

—Egurra murriztuta dago eta hotz egiten du. Langileek beren xaboia eraman behar dute etxetik; huskeria batengatik ehun lira edo gehiagoko isunak jartzen dizkiete. Haurdun dauden emakumeak zutik egin beharreko lanetan aritzen dira maiz, haurdunaldiaren bosgarren eta seigarren hilabetean egonda ere. Zirrara handia egin zidan kasu bat ikusi nuen lixatze-sailean, bost seme-alaba zituen ama batena: senarra gaixorik dago eta aspalditik ez du lan egiten; beraz, bera eta alabetako bat baizik ez dira lanean aritzen; emakume horren begitartea nekeak eta miseriak erabat akiturik zegoen.

—Ez al dago lan-ikuskatzailerik kontu hauetaz arduratzeko?

—Lan-ikuskatzaileak, nik dakidala, maiz bisitatzen ditu lantegiak, eta hala egiten duenean agindua ematen du higie-ne-erreformak egiteko, esaterako, jantokia eta haurtzaindegia jartzeko, baina ez da batere arduratzen agindu horiek betetzen diren kontrolatzeaz. Hortaz, legeari dagokionez, langileak beren kasa utzita daude; barne-batzordeak defendatzen ditu, sindikatuak. Ezer baino lehen lan-erritmoa mantsotu beharko litzateke, prentsetan langileak etengabe baitaude arriskuan eta lanerako behar den abiadura dela-eta handitu egiten baita arriskua.

Alluminium —amaitu zuen Rita Montagnanak— okerren mantendutako lantegietako bat da nik sekula ikusitakoen artean. Bihar bertan joko dut Lan Ikuskaritzara eta kontrol bat egiteko eskatuko dut, baina baitezpadakoa da langileek, gizon zein emakume, bat egitea eta borrokatzea, beren barne-batzorde eta sindikatuaren bidez, dagozkien eskubideez baliatzeko. Hitz-aspertu luzeak izan ditut haiekin, ondotxo dakit espiritu borrokalaria dutela eta ziur naiz lortuko dutela.

«Alluminium fabrikan duela ehun urte bezala dihardute», *l'Unità*, Piemonteko edizioa, 1948ko urriaren 21a, 3. or.

Memoria

Gizon-emakumeak hara-hona dabilta hiriko kaleetan.
Janaria eta egunkariak erosten, hainbat zereginetara jotzen.
Musua gorriturik, ezpain haragitsuak bizi.
Jaso zenuen izara bere aurpegia ikusteko,
makurtu egin zinen musukatzeko keinu ohikoaz.
Baina azken aldia zen. Aurpegia zen ohikoa,
zertxobait akituago. Eta jantzia zen betikoa.
Eta zapatak ziren betikoak. Eta eskuak ziren
ogia zatitu eta ardoa zerbitzatzen zutenak.
Orain ere denbora igaro ahala jasotzen duzu izara
bere aurpegia azken aldiz ikusteko.
Kalean zabiltzanean ez duzu inor ondoan,
beldur zarenean inork ez dizu eskutik heltzen.
Eta kalea ez da zurea, hiria ez da zurea.
Hiri argizatua ez da zurea: besteena da hiri argizatua,
janaria eta egunkariak erosten hara-hona dabilta gizon-emakumeena.
Baduzu leiho lasaian burua pixka bat agertzea
eta isilik begiestea lorategia ilunpean.
Orduan negar egitean bere ahots lasaia zenuen.
Orduan barre egitean bere barre murrizta zenuen.
Baina gauetan irekitzen zen burdin langa itxirik geratuko da betiko;
eta mortu da zure gaztaroa, itzalirik sua, hutsik etxea.

Azaroaren 8a

Natalia Ginzburgek poesia hau eskaintzen dio Leone Ginzburg senarraren oroimenari, zeina Erromako espetxean hil baitzen 1944ko otsailaren 5ean, Gestaporen ankerkeriaren eskuetan eraila. Natalia Ginzburgek, literaturaren munduan Alessandra Tornimparte izenarekin ezaguna zenak, bere benetako izena berreskuratu zuen, faxisten zapalkuntzaren garaian alde batera utzi behar izan baitzuen arraza-arrazoiengatik.

«Memoria», 1944ko azaroaren 8a

Liburu honetan bilduak denak:

Natalia Ginzburg, *Un'assenza. Racconti, memorie, cronache 1933-1988*, Einaudi, Torino 2016.

Itzulpena: Irene Hurtado de Saratxo Mendieta